

2025ean Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile/epaile ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak.

1. ARTIKULUA.- Xedea

Oinarri hauen xedea da, norgehiagoka prozeduraren bidez, 2025ean Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile/epaile ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Dirulaguntza hau eskatzeko aukera izan dezakete aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile/epaile ikastaroak euskaraz egin dituzten Oiartzunen erroldatutako pertsonak edota Oiartzungo Aisialdi edo kirol talde batean begirale/zuzendari/entrenatzaile ari direnek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da:

- Oiartzunen erroldatua egotea edota Oiartzungo Aisialdi edo kirol talde batean begirale/zuzendari/entrenatzaile aritzea.

- Diruz lagunduko den ikastaroa euskaraz eta dagokion erakundeak homologatua izatea.
- % 100eko asistentzia izatea diruz lagunduko den ikastaroan. Gehienez, justifikatutako % 15eko huts egiteak onartuko dira.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

3. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Matrikula gastuen %50a ordainduko die Udalak. Ikasle bakoitzak gehienez 200,00 euroko laguntza jaso ahal izango du, ikastaroko.

Aurrekontua

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 2.000,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2025 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 1 0321.480.335.00.03 2025 (6245) DIRULAGUNTZA: AISIALDIKO BEGIRALEAK zenbakidun partidaren kontura.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da dirulaguntza eskabide guztien artean, inongo lehentasun-ordenarik gabe.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

4. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian edota erregistro elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera orria. (I. ERANSKINA)
- b) Eskolak egindako ziurtagiria. (eskatzaileak ikastaroa gauzatu duela, ordaindutako matrikularen zenbatekoa, asistentzia, ikastaroaren homologazioa eta zein hizkuntzatan burutu den ikastaroa).
- c) Oiertzen erroldatuak ez daudenen kasuan, Oiertzungo Aisialdi edo kirol talde batean begirale/zuzendari/entrenatzaile ari denaren ziurtagiria.
- d) Hala bada, lagapen edo endoso agiria. (II. ERANSKINA) - Eskatzailea adin txikikoa bada eta kontu korrante baten titularra ez bada, lagapen edo endoso bidez adierazi ahal izango du noren kontu korrantean nahi duen diru sarrera egitea)

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiertzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea (eskatzailea pertsona fisikoa bada).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea.
- Eskaera orrian adierazitako kontu korrantearen titulartasuna.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezenean; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Identifikazioa egitea nortasuna egiaztatzen duen edozein dokumenturen bitartez, eskatzailea pertsona fisikoa bada (NAN, pasaportea, e.a.)

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.
- Eskaera egiten duen interesatuak, edota honek lagapen edo endoso agirian adierazitakoak, kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua arabera, Oiartzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

5. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

6. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2025eko maiatzaren 1etik azaroaren 15a arte egin ahal izango dira.

Azaroaren 16tik urtea amaitu bitarte bukatzen diren ikastaroetarako dirulaguntza eskaerak hurrengo urteko deialdian egin beharko dira.

Eskaerak Oiartzungo Udaleko erregistroko dataren arabera aztertuko dira eta 2025eko abenduaren 31 baino lehen ebatziko dira.

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epekin kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitatzat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

7. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

8. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Hizkuntz normalizaziorako saileko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta behin-behineko ebazpen proposamena egingo du.
- Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena egingo du eta hamar eguneko epea eskainiko die pertsona interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.
- Espedientean, bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen denez, pertsona onuradunek dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen instrukzio organoaren txostena jaso beharko da.
- Oiartzungo Udaleko web orrian (www.oiartzun.eus) eta udaletxeko iragarki taulan behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

- Dirulaguntza ukatzen den kasuetan, eskatzaileari jakinaraziko zaio posta ziurtatu bidez.
- Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdian ezarritako egunetik zenbatzen hasita. Epe hori ebazpenik espresuki jakinarazi gabe igaroz gero, pertsona edo entitate eskatzaileek ulertuko dute beren dirulaguntza eskaerak ezetsi egin direla.
- Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela ziurtatu ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.
- Dirulaguntza ordaintzeko modua: Dirulaguntza onartu dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

9. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

10. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den ikastaroaren ordainketaren eta bestelakoen agiriak dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten direnez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

Espedientean, bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen denez, pertsona onuradunek diruz lagundutako ekimenak burutu dituztela egiaztatzen duen instrukzio organoaren txostena jaso beharko da.

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

12. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.